



COVID-19 NEWSLETTER

Txile 2020/06/03



INPAKTU EKONOMIKOA

Makro datuak





BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an % -6 (NDFren balioespena) % 3,75 eta % 4,75 bitarteko hazkundera 2021ean	Aurreikusitako inflazioa % 3 Ekonomiak % 14,1 egin du behera apirilean
EUR/peso kanbio-tasa 870 peso / euro	Apirilean langabezia % 9,8koa izan da herrialde osoan eta % 15,6koa Santiagoko metropolian


Inpaktua sektore industrialetan

Kobrearen prezioak gora egin du berriz aste honetan, libranko 2,490 US\$raino

- | | |
|---|--|
|  Eraikuntza
Jaitsiera handia; proiektu asko geldituko dira eta salmentak % 60 baino gehiago jaitsiko dira |  Metal-mekanikoa
Produkzioa asko murriztuko da eta baliteke Estatuak laguntzak ematea |
|---|--|


Inpaktua zerbitzuetan

- | | |
|--|---|
|  Ostalaritza sektorea
Ostalaritza sektorea eta merkataritza-guneak itxi egin dira Estatu osoan. Erabateko berrogeialdian dauden guneetan, farmaziak eta supermerkatuak bakarrik daude zabalik, eta ordutegi murriztuekin | Aireko garraioa
Tokiko SKY aire-konpainia ekainetik aurrera hasiko da berriz lanean |
|  Txikizkako salmentak (kontuan hartu gabe supermerkatuak) % 50 gutxitu dira. Supermerkatuak kontuan hartuz, ordea, beherakada % 25ekoa da |  LATAM konpainiak % 95 murriztu du bere jardueraren |
| |  Errepideko TURBUS garraio konpainiak bertan behera utzi ditu bere operazioak herrialde osoan |



Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ Interes-tasak: % 0,5erainoko murrizketa (% 1,25etik)
- ❖ Burtsa-merkatuak: % 30etik gorako jaitsiera urte hasieratik hona
- ❖ Txileko ekonomia % -14,1 jaitsi da martxoan, erregistratu den beherakada handiena (% -0,1 meatzaritza sektorean eta % -15,5 meatzaritzakoa ez den sektorean)
- ❖ LATAM aire-konpainiak AEBetako kiebraren legea aplika diezaioten eskatu du, Txilen, Kolonbian, Ekuadorren eta AEBetan dauzkan filialak berrantolatu eta berregituratzeko. Bere akzioak % 30 jaitsi dira gaur



EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

Neurri fiskalak

- ❖ Datozen hiru hilabeteetan eten egingo dira enpresen errenta zergaren hileroko behin-behineko ordainketak (PPM). Neurri horri esker, 700 mila enpresak baliabide gehiago izango dituzte kutxako fluxuan
- ❖ BEZaren ordainketa 3 hilabetez geroratzea
- ❖ Errentaren zergaren ordainketa 2020ko uztailera arte atzeratzea
- ❖ Malgutasuna diruzaintzako zorrekin
- ❖ Kontribuzioen ordainketak geroratzea interesik eta isunik gabe



Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)

- ❖ Zailtasunak dituzten enpresa eta pertsonen kasuan, 6 hilabetez atzeratzea hipoteken ordainketak; kreditu-aldiaren amaieraraino atzeratuko da ordainketa
- ❖ 24.000 milioi US\$-rainoko estatuaren **abal-ildoak MikroETEEi zuzendutako FOGAPE** kredituetarako. Kreditua 3 hilabetez fakturazioaren batez bestekoaren parekoa izan liteke (2018ko irailtik 2019ra bitarteko batez bestekoa kalkulaturik), eta zenbatekoa kalkulatzeko kontuan hartuko da azken urteko fakturazioa, zati 12 eginda eta bider 3 eginda
- ❖ Gobernuak kreditu-ildo berri bat aktibatuko du mikro-enpresentzat eta enpresa independenteentzat, FOGAPERako sarbiderik ez duten bankuak ez diren beste finantza-erakunde batzuekin
- ❖ Gobernuak janari-kaxak entregatuko ditu bazterkeria sozialeko arriskuan dauden familientzat (2,5 milioi elikagai-kaxa baino gehiago)
- ❖ Gobernuak iragarri du 18.000 milioi pesoko (20 milioi euro) funts-sorta berri bat sortuko duela mikro-enpresei eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeko 2 erakunde publikoren bitartez: SERCOTEC eta CORFO



Lan-indarra

- ❖ **Langileak:** 3 hilabetez gobernuak soldataren % 50a ordainduko die lanaldia % 75era murrizten duten langileei, eta langabezia-aseguru bat erabiliko du horretarako. Enplegatzaileak osasuna eta erretiroa ordaintzen jarraituko du
- ❖ Bono ekonomikoak familia kaltetuenentzat
- ❖ **Langile informaleak:** 2.000 milioi US\$-ko funts bat sortuko da langile informalei ordaintzeko eta enplegu informala sortzeko
- ❖ **Ordainsarika lan egiten duten langileak:** ordainsarika lan egiten duten langileei laguntzeko neurriak ebaluatzen ari dira (autonomoen antzeko kontzeptua)
- ❖ **Familiak:** familientzako larrialdietarako diru-sarrera bat, diru-sarrera informaletatik bizi diren familia kalteberentzat (% 60), beti ere larrialdiak dirauen bitartean



MUGAK

Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

- ✓ **Merkatu-gaien barneko garraioak** berdin jarraitzen du lanean
- ↓ **Barneko hegaldiak** murriztu egin dira (LHren hegaldiak % 95), eta **autobusen** bidaiak ere bai, baina badaude gutxieneko zerbitzuak

Biztanleriaren mugikortasuna

- ⊕ **Erabateko berrogeialdia** maiatzaren 15etik (ostirala) eskualde metropoliar osoan (biztanleria osoaren % 42). Herrialdeko beste eskualde batzuetan berrogeialdi partzialak eta osasun-kordioak daude
 - ⊘ **Besterik adierazi arte** haurrak ez dira itzuliko ikastetxeetara, berrogeialdiagatik eta kutsatzeak bortizki handitzeko beldurragatik
- Asmoa da saltokiak eta oinarrizkoak ez diren jarduerak gradualki irekitzen hastea (bertan behera gelditu da)
- Etxeratze-agindua dago herrialde osoan gaueko 22:00etatik goizaldeko 5:00etara

Mugetako egoera

- ⊘ **Mugak itxita** daude besterik adierazi arte (**portuak eta aireportuak**)
- ↓ **Bidaiaridun hegaldiak** % 95 murriztu dira